


## 2012an, 15 eta 29 urte bitarteko 1139 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren EAEn


### 15 eta 29 urte bitarteko emakumeak indarkeria sexistaren biktima guztien % 29 dira

Emakumearen Euskal Erakundeak, [Emakundek](#), emandako datuen arabera, 2012an, 3897 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren. Horietatik, 1139k 15 eta 29 urte bitarteko adina zuten, hau da, % 29k.

Adin-taldeei erreparatzen badiegu, biktimen % 7 (263, guztira) 15 eta 19 urte bitartekoak izan ziren; % 10 (386), 20 eta 24 urte bitartekoak; % 12 (490) 25 eta 29 urte bitartekoak; eta gainerako % 71 30 urtetik gorakoak.




Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen tasek (adin-talde bereko 1.000 emakumeko kalkulatuak) zera erakusten dute: 15 eta 29 urte bitarteko adin-tartean tasa 30 urtetik gorakoenaren halako bi dela (% 7,5 eta % 3,3, hurrenez hurren). Alde hori bereziki esanguratsua da Bizkaian: bertako tasak altuenak dira.




Arestian ikusi dugun bezala, EAEn genero-indarkeria dela-eta salaketak jarri dituzten emakumeak 3897 izan ziren. Baina indarkeria hori ez da beti esparru berean gauzatzen, eta, horregatik, beharrezkoa da emakumeen aurkako indarkeria honako hiru alderdien arabera aztertzea:

- ✓ Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria;
- ✓ familiaren barnean gauzatzen den indarkeria, baina ez bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik; eta
- ✓ sexu-askatasunaren aurkako delituak.

Hartara, 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan arreta jarrita, konprobatu ahal izango dugu indarkeriaren biktima izan diren 1139 emakumeetatik, % 78k bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik jasan zutela indarkeria; % 14k familiaren barrutik, baina ez bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik; eta % 8 sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima izan zirela.



**Emakumeen sexu-askatasunaren aurkako delituei** bagagozkio, 2012an 210 emakume izan ziren sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima. Azpimarratzekoa da horietatik 45, hau da, % 22, 15 eta 19 urte bitartekoak izan zirela. Gainerako biktimak honela banatzen dira, adin-taldeen arabera: % 12 20 eta 24 urte bitartekoak izan ziren; % 12 25 eta 29 urte bitartekoak; eta % 54 30 urtekoak edo nagusiagoak.



Lurralde historikoen araberrako datuak [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) kontsulta daitezke, "Balioak eta jarrerak" atalaren "Emakumeenganako indarkeria" azpiatalean, hain zuzen ere.

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) [Beldur Barik!](#) egitasmoa zabaltzen lagundu nahi du. Egitasmo hau Emakundek eta Eudelek sustatzen dute, berdintasunaren aldeko Berdinsarea udal-sarearen baitan, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiek finantziarioekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, EHU-Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren lankidetzarekin. Egitasmoaren helburua gazteen artean indarkeria sexista prebenitzea da. Programaren osagai nagusienetako bat ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen dituen lehiaketa da, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua. Adierazpen horietan, neskek eta mutilek erakusten dute emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari nola egiten dioten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, ardurakidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespenean oinarrituta. Beldur Barik ekimenari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu bere webgunera.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

